

- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure lankideak soldata finkoak edukiko dituzte hileror. Alde batetik, informatikari bat kontratatuko ditugu webgune bat sortzeko, baina hura behin-betiko 1000€-ko ordainketa izango da. Bestetik, administratzaile bat kontratatuko dugu, administrazio kontuak eramateko, horren truke, 1700€-ko soldata bat jasoko du. Halaber, soldata hauek finkoak izango dira, baina gure enpresa handitu heinean eta diru-sarrerak gehiago eduki ahala, soldatak igo egingo dira. Bestalde, hainbat kostu finko izango ditugu, hala nola, lokalaren alokairua eta wifi-a.

Lokalaren alokairuaren aldetik, argia eta ura kostua barne dago. Horrez gain, 170€-ko alokairua izango dugu. Wifi-aren aldetik, 20€ soilik inbertituko ditugu.

Publizitatea momentu finko batzuetan egingo dugu, bereziki hasieran, geure enpresa ezagutarazteko. Horretarako, marketing enpresa bat kontratatuko dugu. Adibidez, [elements digital](#) eta [Expiey](#). Marketing-en aldetik, enpresarik onena Expiey da, honek 5 marketing kanpaina egin du. Gainera, Expiey ere, webgune bat egiteko zerbitzua ere ematen du. Hau guztia, 2000€ kobratzen dute. Elements digitalen aldetik, sare sozialetik publizitatea egitea oinarritzen da, nahiz eta bakarrik sare sozialetan publizitate bakarra egin, hainbat kritika onak jaso ditu, honek 1000€ kostatzen ditu.

GASTUAK:	BEHARKO IZANGO DUGUN DIRUA
- lokalaren alokairua - wifi - langileak: - Informatikari - Administratzaile/kontablea - Publizitatea egiteko - Administrazio kontuak	- 170€/hilean - 20€ hileror gutxi gora behera - 1000€ (informatikaria) - 1700€ hileror (administratzaileari)

Dirua enpresa handiek ezinduentzako bideratuta dituzten fondoetatik atera dezakegu, edota diputazioak eskaintzen dituen diru laguntzetatik. Alde batetik, hainbat erakunde desberdinek ezinduen bizitza hobetzeko inbertsioak egiten dituzten, beraz, inbertsio horiek aprobetxatu ahalko genituzke. Honako enpresen laguntzak jaso ahalko genituzke:





Bestalde, gure zerbitzuak hainbat enpresei eskaini ahal dizkiegu, indarreko legedia betetzeko langile guztien %2k izan behar du ezintasun bat, isun eta zehapenen eraginpean ez jartzeko.

Eskubide Sozialen Ministerioak eta Agenda 2030ek eta beste administrazio publiko batzuek dirulaguntzak eskaintzen dituzte ezintasun duten pertsonak gizartean integratzea sustatzen duten sentsibilizazio-proiektuetarako. Kolektibo horren laneratzea sustatzeko SEPEren dirulaguntzak ere eskura daitezke.

Enpresak diru-iturriak lortzeko bide bat izango litzateke, enpresak ezindu bat kontratatu baino lehen, kontratu bat egingo genuke, ezinduen soldataren %10 jasotzeko ezinduen soldatik kendu gabe. Adibidez, [COCEMFE](#) enpresarekin kontratu hori egin ahalko genuke. Bestalde, publizitate kanpainaren eta sare sozialen bidez, donazioak jasotzeko aukera izango ditugu. Hortaz, gure enpresaren diru-sarreraren %20 donazioen bidez lortuko dugu. Azkenik, ezintasun bat izandakoan, erakunde publikoetatik, zein pribatuetatik diru-laguntzak helarazten dute. Erakunde publikoen aldetik, Foru aldundiak, estatua eta udalak daukagu, honek pertsona batek %75 eko ezintasuna badauka, estatuak urtero 8158,80€ ematen die. Erakunde pribatuak aldiz, ezinduei zuzeneko laguntza ekonomikoak edota bekak helarazten die, gastu medikoak, terapiak, talde espezializatuak edo oinarrizko beharrak estaliz. Esate baterako, 17'742.9€ hilero lortuko genuke erakunde publikoetatik eta pribatuetatik. Adibidez, Foru Aldundiak [Fekoor](#)-ri 110.069,06€ eman dio 2 prestakuntza-ikastaro antolatzeke, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazteko. Edota, Aldundiak 426.204€-ekin finantzatzen du FEKOOR BIZINDE MENTORIA SOCIAL programa.

DIRU-SARRERAK	EHUNEKOAK
Enpresen bidez Donazioen bidez Diru laguntzen bidez	Enpresen diru-sarreraren <u>%10</u> Donazioak <u>%20</u> Publikoak (udal, foru, estatua) eta pribatuko laguntzak. <u>%70</u>